



## RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

La Junta de Portavoces, en sesión celebrada el 22 de septiembre de 2020 a las 11:30 horas, aprobó, por unanimidad, la adhesión del Ayuntamiento de Eibar y del municipio en su conjunto, así como, por ende, su participación en Euskaraldia de este año, en base a los criterios establecidos para la convocatoria del presente ejercicio.

Acuerdo cuyo contenido se recoge en la declaración institucional apoyada en la Junta de Portavoces que se detalla a continuación:

*"Miles de ciudadanos y ciudadanas de Euskal Herria (225.000) participaron en la 1ª edición del Euskaraldia que se llevó a cabo del 23 de noviembre al 3 de diciembre de 2018, con el impulso de las instituciones públicas y los agentes sociales.*

*En Eibar participaron en la iniciativa 3.825 personas: 2.436 "ahobizi", 944 "belarriprest", y 445 "bihotzgoxo".*

*La valoración de la primera edición fue positiva, tanto de la participación, como de la incidencia que tuvo esta iniciativa en el uso del euskera.*

*En este momento, se encuentran en marcha las tareas de organización de la segunda edición del Euskaraldia, con una novedad importante: además de la participación individual, también podrán participar las entidades, creando espacios llamados "Ariguneak".*

*El objetivo del Euskaraldia es modificar los hábitos lingüísticos para incrementar el uso del euskera. El lema de esta edición del Euskaraldia es "Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan". Y para que aumente el uso del euskera, se considera indispensable utilizarlo también a nivel grupal (en empresas, comercios, asociaciones). Los grupos tienen gran incidencia en la elección y en el uso individual de la lengua. Por todo ello, las eibarresas y los eibarreses celebraremos el Euskaraldia, no solo de modo individual, sino también colectiva en los entornos de los que formamos parte en el día a día.*

*En Eibar la dinamización y la coordinación la llevará a cabo Eibarren AKEBAI.*

*Por todo ello, realizamos la siguiente declaración:*

### DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

- *El Pleno del Ayuntamiento de Eibar se adhiere al Euskaraldia que se va a desarrollar en toda Euskal Herria, del 20 de noviembre al 4 de diciembre de 2020 e impulsará dicha iniciativa. Por tanto, adquiere el compromiso de actuar con responsabilidad y ejemplaridad.*



- *El Ayuntamiento de Eibar como entidad se ha inscrito en el Euskaldeia, identificando e impulsando los “Ariguneak”.*
- *Hacemos un llamamiento a las y los componentes del Ayuntamiento, a la ciudadanía y agentes locales para que participen identificándose como “ahobizi” y “belarriprest” y participen en los “arigunes”.*
- *La tarea principal de las y los representantes políticos será la de difundir la iniciativa que se va a desarrollar dentro del marco del Euskaldeia, en el Ayuntamiento y en sus entidades autónomas. Por ello, va a dar los pasos necesarios para activar el mayor número posible de “arigunes”, “ahobizi” y “belarriprest” entre las y los responsables políticos y trabajadores.*

*El Ayuntamiento de Eibar adoptará medidas para posibilitar esas prácticas lingüísticas y para poder seguir manteniendo dichas prácticas en el tiempo.*

Ante todo lo anterior,

#### **RESUELVO**

Que el presente escrito sea aceptado y conste la adhesión del Ayuntamiento de Eibar y su municipio en la edición de este año de Euskaldeia.

Que, asimismo, se dé cuenta de este acuerdo en el seno de la sesión plenaria del próximo 28 de septiembre mediante la lectura de la declaración institucional aquí recogida.

En Eibar, a 23 de septiembre de 2020.

EL ALCALDE

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL



## ALKATETZAREN EBAZPENA

Bozeramaileen Batzordeak, 2020ko irailaren 22an, 11:30ean egindako bilkuran, aho batez onartu zuen Eibarko Udala eta udalerri osoa atxikitzea, bai eta, ondorioz, aurtengo Euskaraldian parte hartzea ere, ekitaldi honetarako deialdirako ezarritako irizpideetan oinarrituta.

Erabaki horren edukia Bozeramaileen Batzordeak babestutako erakunde adierazpenean jasotzen da. Adierazpen hori jarraian zehazten da:

*Euskal Herri osoko ehunka herritako milaka lagunek (225.000) parte hartu zuten, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, Euskaraldiaren lehen edizioan, erakunde publikoen zein gizarte eragileen bultzadaz.*

*Eibarren ere, 3.825 herriarrek hartu zuten parte zuzenean ekimenean: 2.436 “ahobizi” 944 “belarriprest” eta 445 bihotzgoxo”.*

*Lehenengo edizioaren balorazio positiboa egin zen, bai parte-hartzearen aldetik eta baita ekimenak erabileran izan zuen eraginaren aldetik ere.*

*Une honetan, abian dira Euskaraldiaren bigarren edizioa antolatzeko lanak, berrikuntza nagusi batekin: norbanakoez gain, entitateek ere zuzenean parte hartu ahal izango dute, entitate barruan “Ariguneak” sortuta.*

*Euskaraldiaren helburua da hizkuntza ohiturak aldatzea euskararen erabilera areagotzea. Aurtengo Euskaraldiaren leloa ‘Gehiago, gehiagorekin, gehiagotan’ da. Eta euskaraz gehiago egiteko, funtsezkotzat jotzen da taldean (enpresetan, dendetan elkarteenetan) ere euskaraz egitea. Taldeek berebiziko garrantzia dute norbanako hizkuntz hautuetan eta norbanako jardunean. Horregatik guztiagatik, eibartarrok norbanako gisa ez ezik, entitateetan ere egingo dugu Euskaraldia, gure egunerokoan parte hartzen dugun guneetan, entitateetako ariguneetan.*

*Eibarren, Euskaraldiaren dinamizazioa eta koordinazioa Eibarren AKEBAIk egingo du.*

*Horregatik guztiagatik, honako hau adierazten dugu:*

## ERAKUNDE ADIERAZPENA

- *Eibarko Udalatzak bat egiten du Euskal Herri osoan 2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra bideratuko den Euskaraldiarekin, eta ekimenaren sustatzaile ere izango da. Horrenbestez, erantzukizunez eta eredugarritisunez jokatzeko konpromisoa hartzen du.*
- *Eibarko Udalak, entitate gisa, Euskaraldian izena eman du, horretarako ariguneak identifikatuz eta bultzatuz.*



- *Dei egiten diegu udala osatzen duten pertsonei, herritarrei eta herriko eragileei ahobizi eta belarriprest izan daitezen eta ariguneetan parte har dezaten.*
- *Ordezkari politikoon egiteko nagusia izango da Euskaraldiaren markoa eta bereziki Udalean eta Udalaren ardurapeko entitateetan ekimena zabaltzea. Horrenbestez, ekimen honetan ahalik eta arigune gehien, eta “ahobizi” eta “belarriprest” gehien aktibatzeko urratsak emango ditugu, arduradun politikoak izan nahiz langileak izan.*

*Eibarko Udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza-praktika horiek posible izan daitezen eta praktika horiei etorkizunean eutsi ahal izateko.*

Honen guztiaren aurrean,

#### **EBAZTEN DUT**

Idazki hau onartzea eta Eibarko Udal eta bere udalerria Euskaraldiaren edizioan atxikitzea.

Era berean, erabaki honen berri eman dadila irailaren 28ko osoko bilkuran, hemen jasotako erakunde adierazpena irakurrita.

Eibar, 2020ko irailaren 23a.

ALKATEA

MIGUEL DE LOS TOYOS NAZABAL